

BALIO PROPOSAMENA

Proposatzen dugun zerbitzua garraio publikoetako eserlekuetan larrialdietarako botoi batzuk jartzea da, BAB (Biolentzia aurkako botoia) izendatuta.

Gure eguneroko bizitzan garraio publikoa funtsezkoa da, izan ere, bertan milaka hiritarrak elkarreragiten dute beren ibilbidean. Hala ere, eguneroko erabileraren ondorioz, erabiltzaile askok esperientzia negatiboak izaten dituzte. Esaterako, segurtasun-arazoak, hala nola jazarpena eta erasoak. Gainera, pertsona askok diskriminazio-, arrazakeria- eta sexismo-esperientziak jasan ditzakete, espazio horien barruan desberdintasuna eta segurtasunik eza areagotzen dutelarik. Beraz, arazo horiek identifikatzea oso garrantzitsua da erabiltzaile guztientzako garraio publikoko sistema seguruagoa, inklusiboagoa eta eraginkorragoa lortzeko.

Beraz, zerbitzu hau funtsezkoa da ingurune seguruagoa sustatzeko, non pertsona guztiak mugitu ahal izango diren erasoen edo tratu desorekatuen biktima izateko beldurrik gabe. Garraibide publikoetako eserlekuetan izuaren botoia jartzea planteamendu berritzailea da autobusen segurtasuna eraginkortasunez hobetzeko. Sistemak aukera emango lieke bidaiariei, gidariari edo segurtasun-langileei jokabide susmagarriei edo mehatxuei buruz, berehala baina modu diskretuan, jakinarazteko. Teknologia horren abantailak askotarikoak dira. Alde batetik, ingurune segurua sortzen du delituak sahiestean. Beste aldetik, bidaiariei eta segurtasun-langileei hobeto komunikatzen laguntzen die eta larrialdietan erantzuteko denbora murrizten du. Neurri horrekin bidaiarien ongizatea handitu egiten da, ondorioz, garraio publikoarekiko konfiantza lortzen da.

Uste dugu garraio publikoko enpresak prest egongo dira gure produktua erosteko, zeren eta irtenbide bat eskaintzen dugu bidaiariei eta ertzaineri larrialdi-egoeretan berehala ohartarazteko. Horrek portaera desagokiak ekidin ditzake eta segurtasun-sentsazioa areagotuko luke.

Bestalde, botoia erraz eskuratzeko eta erabiltzeko moduan dago diseinatuta. Beste era batean esanda, estres-egoeretan edo une kritikoetan, erabiltzaileek arazorik gabe aktibatu ahal izango dute alerta, hau da, laguntza modu diskretuan emateagatik bereizten gara. Laguntza eskatzeko modu asko dauden arren, laguntza eskatzerakoan nahiko zailak dira. Hala ere, gure produktua zuhurtziaz aktibatzen da. Gailua, halaber, berehalako erantzun-sistema batera konektatzen da, gidariei eta autobuseko segurtasun-zentralari egoeraren berri ematen zaie. Horrek erreakzio azkarra eta koordinatua ahalbidetzen du.

Azkenik, garrantzitsuena da gure produktuak jazarpenari eta erasoari aurrea hartzen laguntzea, eta horrek balioa ematen dio eta komunitate seguruagoa sortzen du. Gainera, talde zaugarri babesean zentratzen denez, hala nola emakumeen eta arrisku-egoeretan dauden pertsonen babesean, mezu argi bat bidaltzen da, guztiek dutela espazio publiko segurua izateko eskubidea.

Logotipoa

Bestalde, logotipo bat sortu dugu, enpresarentzat tresna garrantzitsua dela uste baitugu. Alde batetik, eragin handia du bezeroek marka hautemateko moduan, bezeroek marka ezagutzea errazten duen identitate bisual bat sortzen baitugu. Gainera, logotipo bat erabiliz bezeroak erakar ditzakegu, publikoarekin konekta ditzakegu. Bestalde, tresna bikaina da lehiatik bereizteko eta merkatuan nabarmentzeko.

Gure logotipoan botoiaren izenean BAB sartzea erabaki dugu, hau da, Biolentzia Aurkako Botoia. Gainera, behealdean segurtasun hitza sartzea erabaki dugu, hori baita enpresaren helburu nagusia. Bestalde, laguntza-seinalea irudikatzen duten marrazki batzuk sartu ditugu.



Gainera, diseinu bat egin dugu autobusetan txertatzen ditugun botoietan sartzeko.

